

2015

Ixone Garmendia Garaizabal
igarmendia028@ikasle.ehu.eus
UPV-EHU, Letren Fakultatea
Ingeles Ikasketak
Grekolatindar Literatura.
GREZIAR LITERATURA
2015-2016.



[MUNDUKO MITOLOGIAK AZTERTZEN: POLIFEMO ETA TARTALOREN ARTEKO KONPARAKETAN SAKONDUZ]

Aurkibidea

Laburpena:.....	3
Sarrera: Mitologia eta honen betebeharrak kulturalak:	3
Mitologia motak:	4
Mitologia konparatua:.....	5
Kosmologiaren irudikapena:	6
Gizaki eta jainkoen arteko harremanak:	6
Sakrifizioak:.....	7
Polifemo eta Tartaloren arteko alderaketa.....	8
Heroia munstroaren atzaparretan erortzen denekoa (A):.....	11
Kanibalismoa (B).....	11
Ardoaren eskaintza eta mozkorra (C).....	11
Itsutzea (D).	12
Laguntza eskaera (E):.....	12
Leizeko ihesa (F).	12
Ziklopeen lurraldeko ihesa (G); orakuluak aurreikusitakoa betetzea (H); harrien jaurtiketa (I); mendekuaren eskaera (J) eta gainerako itsasgizonekin elkartzea (K).....	12
Konklusioa:	16
Bibliografia.....	16

Laburpena:

Lan honetan zehar Euskal mitologian Tartaloren inguruan eraiki diren mitoak, Greziako Polifemoren mitoarekin alderatuko dira. Horretarako, lehenago mitologia zer den, baita mitologia indoeuroparraren eta euskal mitologiaren ezaugarri zenbait azalduko dira.

Sarrera: Mitologia eta honen betebeharrak:

Askoren ustetan, mitologia sasi istorioez osatuta dago, hau da, inolako egiantzekotasunik duten istorio faltsu eta fantastikoez. Literatur aldetik bakarrik egozten zaio balioa, ikuspuntu erlijioso eta filosofikotik duen balio guztia ukatuz. Grekoz *mito* (*mytos*) hitzak ez zeukan horrelako gutxiespen zentsurik, eta aldi berean, ez zitzaion arrazoiari (logos) kontrajartzen.

Guzti honek, ordea ez du esan nahi mitoak esaten duena bere osotasunean barneratu edo sinetsi behar denik. Mitologia ulertu ahal izateko beharrezkoa da honen sentzu sinbolikoaz jabetzea, izan ere, bere helburua ez da gertakizunen azalpen zientifikorik eskaintzea, gizakiak dituen kezkei eta ardurei ulergarritasuna ematea baizik. Bizitako esperientzia kontakizun sinboliko baten barruan kokatzean datza, erreferente zuzenik gabe. Errealitateari zentsua ematea dute helburu, eta horretarako zuzenean adierazi ezin daitekeenari sujerentziak, aipamenak egiten dizkiote.

Herri zein kultur bakoitzeko mitologiak bertan bizi direnen ezaugarriak eta egunerokotasuna azaltzen ditu; nortzuk diren, nola bizi edota jokatu behar duten, zein helburu duten, mundua eta natura bera nola ulertzen duten ... Ildo beretik, aipagarria da bizitza ulertzen laguntzeaz gain, ideologia jakin bat adierazten edo helarazten duela.

Herrialdeen nolakotasunak mitologia mugatuko du, hau da, itsasora bideratuta dagoen herrialde bateko izaki fantastikoez itsasoarekin zerikusia izango dute. Aitzitik, lurrarekin, ehizarekin ... harremana dutunek bestelako izaki mitologikoak aurkeztuko dituzte; ezagutzen dituzten harrapari eta harrapakinetan lotuak alegia. Honek, beraz, aurretik esandakoa egiaztatzen digu; izakiak mitologia bere errealitatearen arabera eraikitzen duela.

Mitoek unean-uneko errealitatea adierazten dutenez, denboraren poderioz aldatuz, birformulatuz doaz. Akulturazio prozesuen eraginez, mitologia berriek aurretik zeudenak ordezkatzen dituzte. Aurreko gizaldietan zegoen bizimodua alde batera uzteak, eta horren ordez berri bat izateak, indarrean zeuden mitoek bizitza zein errealitatea irudikatze eta azaltze gaitasuna galtzea eragiten du. Ordura arte, aurreko mitologiari zegozkien naturaz gaindiko izakiak bizitzaren alderdi guztietarako eredu bezala jokatu dute, baita zenbait fenomenoren zergatia ulertzeko; tximista zer den eta zerk eragiten duen, gaizkia zer den eta nondik datorren, heriotzak zer esan nahi duen eta horren ostean zerbait ote den ...

Momentu jakin batetik aurrera ordea, mitologiak sortu diren errealitatearekiko lotura guztiak hautsi eta istorio multzo bilakatuko dira, aldi berean mito berriak sortuko direlarik.

Mitologia motak:

Garagalzak (2006/2007) esaten duena kontutan hartuz, historian zehar sortu, eta egun bizirik dirauten mitologiak ezberdinak izan arren, beraien artean nolabaiteko antzekotasunak nabarmentzen dira. Antzekotasunon zergatia ulertzeko historian zehar proposatu diren bi hipotesi dakartza:

- Gizakion psikeak sinbolo eta arrazoi jakin batzuk sortzeko joera duela defendatzen duena. Hau da, ikuspuntu biologiko batetik, giza gorputzak organo eta funtzio berberak dituen heinean, jera eta gatazka berberak izango ditu.
- Mitoek haien artean dituzten antzekotasunak azaltzeko kulturen artean izan diren harremanak aurkitu eta horietan oinarritzen dena. Honen arabera, leku jakin bateko testuinguru geografikoa eta kulturala beste batera igortzen da, honekin batera aldaketak, moldaketak eragiten dituelarik.

Mitologiaren artean ikus daitezkeen aldeak handiak izan arren, mitook zenbait multzotan bereiztea ahalbidetzen duten ezaugarriak aurki daitezke:

- **Amatasun-emakumezko mitologia:** Euskal mitologiari dagokiona. Garagalzak dion bezala, mitologia mota honek, lurra guztion ama bezala irudikatzen du. Euskaldunon kasuan ama lur hori Anbotoko Mari litzateke. Gizakiak hil ostean lurrera bueltatzen dira, eta honek bizi berri bat eskainiko die. Naturak eta gizakiak bereizgarri berak partekatzen dituzte, eta horregatik guztion ama bezala irudikatzen da.
- **Aitatasun-gizonezko mitologia:** Kasu honetan Greziar mitologiari dagokiona. Aurrekoan ez bezala, gizakia hil ostean ez da lurrera bueltatzen, zerura baizik. Lurrera itzuli beharrean bertatik ihes egiten du. Jainkoa da gizaki guztion sortzailea, eta beraz lurra ez da “ama lurra” izango. Mitologia hau gizon irudiaren inguruan eraikitzen da, heroia izango den gizonaren inguruan alegia.
- **Bitartekaritza:** anaitasunezko mitologia: Labur esanda, aurreko bien ezaugarriak txandakatzen dituena da. Lana amatasun-emakumezkoa den euskal eta aitatasun-gizonezkoa den mitologia grekoaz diharduenez, ez dugu mota honetan sakonduko.

Interpretazio sinbolikokoaren aldetik ere sailkatzen direla dio Garagalzak;

- **Eguneko erregimena:** Ikuspuntu dualista nagusitzen da. Batak konnotazio txarra jasoko du, eta honi argitasuna inposatuko zaio. Hau da, txarraren eta ongiaren arteko banaketa bat nabarmentzen da. Honako hau Greziar literaturari dagokio.

- **Gaueko erregimena:** Erregimen honetan gizakiaren helburua edo balioa ez datza gailurra edota zerua eskuratzean. Horren ordeztu, lurrera itzultzen dira; betiko atsedena eskainiko dion lurrera. Heriotzak jada ez du eguneko erregimenean zuen zentzu “beldurgarri, ikaragarria”. Ikuspuntu honi jarraiki, heriotzarekin batera bizi berri bat hasten da. Horrez gain, lurrari amatasun eta emetasun ezaugarriak esleitzen zaizkio. Euskal mitologia erregimen honen barruan kokatzen da; figura heroikoen absentsia; Anbotoko Mari naturaren zein lurraren ordezkaria ...

Mitologia konparatua:

Ondorengo atalean, Euskal mitologia, inguruko mitologiekin eta Europako mitologia handiekin konparatzen saiatuko gara. Lehenik eta behin, Euskal mitologia Euskal Herriaren tamainakoa dela argitu beharra dago, hau da, txikia. Mitologia aberatsa da, baina, inguruko mitologiekin (europar mitologia klasikoa edota zelta) alderatuz gero, xumea da. Hartsuagak (2007) dakarren bezala, Euskal Herrian aurki daitekeen kultura hau, denboraren joan etorriaz, herri eta kultura ezberdinen eragina jaso eta egokituz joan da; kultura erromatarra, kristautasuna ...

Gure mitologiarekin antzinatek elkartrukean aritu diren Kantauri-Pirinio lurraldeko herrialdeak dira, Euskal mitologiaren antz handiena dutenak; Kantabria, Asturias, Galizia eta Aragoi. Hauek, gureak bezala, naturarekin harreman handia dute; mitoetan agertzen diren pertsonaiek fenomeno naturalekin eta naturako elementuekin zerikusia dute oro har. Mitologia handiei dagokionez, Grezia eta Erromatar mitologia eta Zelten mitologia dira eragin handiena izan dutenak euskal kulturaren. Azkenik aipatutako Europar mitologia handi hauek erroan naturarekin harremana badute ere, mitologia pertsonifikatu eta gizarteratu bat islatzen dute; jainko, errege, erregina, printzesa, borrokalari eta heroiz josia dagoena. Elezaharrek beraien arteko ahaidetasun luze eta korapilatuak kontatzen dituzte, ondorioz, esan bezala, mitologia pertsonifikatu eta gizarteratu bat islatzen dute. Euskaldunoi dagokigun mitologia oinarritzkoagoa eta zuzenagoa da, historian zehar gutxiago garatu eta idatzia izan dena.

Hala ere, ondorengo lerroetan hobe biltzen dira bata zein bestearen ezaugarri bereizgarriak.

Hartsuagak (2007) diotenaren arabera, mitologia indoeuroparrean funtsezko ideia nagusi bat aurki daiteke: hiru funtzioen estruktura edo hierarkia. Ideia hau, indoeuroparren errealitatea hiru funtziotan banatzen dator.

Lehenengo funtzioak botereari eta autoritateari egiten dio erreferentzia. Sarritan bitan banatu egiten da, botere politikoa eta espiritual. Bigarrenak esfera militarri egiten dio erreferentzia. Bertan aurki daitezkeen mezuak argiak dira: borrokalaria ausarta, indartsua eta soila izan behar da. Ausardia eta indarra borrokan erakutsiko ditu gerlariak, soiltasuna ordea edertasunaren, ondasunen eta ugaritasunaren ukazioan antzeman daitezke. Azkenik, hirugarrenak herria, masa sozial giza irudikatuko du; laborantza, emankortasun eta ugalkortasuna, emakumea ... Esparru honek, ikuspuntu Indoeuroparretik abiatuta, konnotazio

negatiboak baino ez dauzka; herria krudela, koldarra, traidorea, ahula eta zekena baita. Ondorioz, herriak dituen jarrera desegokiak berezkoak zaizkio, jainkoek ez dituzte horiengatik heroiak zigortuko, errege-erreginak eta izaki zerutiarrak zigortzen dituzten bezalaxe. Hirugarren sektore honi gizatasuna ukatu zaiola esan daiteke

Erregeen semeengan banaketa honen aztarnak aurki daitezke; semeetako batek agintzeko edota herria bideratzeko gaitasuna izango du, bigarren batek armada zuzenduko du eta hirugarren batek, ordea ez du ezertarako balioko; edari zein janariaren esklabo izango baita. Parisen kondaira grekoan ere hiru dohain eskaintzen zaizkio; inperiorik handiena (lehenengo funtzioa); nagusitasuna gerran (bigarren funtzioa) eta emakumerik ederrena (hirugarren funtzioa).

Euskal mitologia erabat bereizten da aurretik aipatutako ezaugarritik. Ez du jainkoen panteoirik edota heroi nazionalik, baina kontuz, horrek ez du esan nahi xumea eta orijinaltasun gabea denik. Jose Miguel Barandiaranek egindako lanak ikustea besterik ez dago haren konplexutasunaz jabetzeko. Funtzioen banaketa ere, ez da aipatutakoa, herri zumeari ez baitzaizkio nolakotasun negatiboak jaiotzaz egozten.

Kosmologiaren irudikapena:

Mitologia indoeuroparraren arabera, Kosmosa bitan banatzen da; zerua (jainko zerutiarren bizitokia) eta lurra, (gizakien bizitokia). Jainkoak, nahi duten beste jaitsi daitezke lurrera, gizakiek aitzitik ezinezko dute zerura urreratzea, joatekotan, jainko batek bertara eraman duelako izango da. Jainkoek erabateko boterea dute eta Troiako gerran antzeman daitekeen bezala, lurra eta bertan bizi direnen bizia nahi bezala kontrolatzen dute. Herak sorrarazi zuen Troiako gudua, ondorioz, bertan parte hartzen dutenak zerutik mugiaraziak diren txotxongiloak baino ez dira.

Euskal mitologiak deskribatutako kosmologiaren irudikapen kontrajarria du; lurreko gainazalak, zeruak eta lurpeak osatzen dute. Zeruaren existentzia bera zalantzan jartzen da; firmamendua bai, baina jainkoen bizitoki den zerurik ez dago, naturaz gaindiko izaki guztiak lurpean bizi dira. Firmamendutik pasa daitezke (eguzkia, Mari, ilargia), baina ez dira bertan bizi. Ondorioz, tximista bezalako fenomeno meteorologikoak tradizio indoeuroparrean jainkosen eskutik datozen bitartean, Euskal Mitologian lurraren baitan sortuko dira; ama lurra den Marik eraginda. Hartsuagak argi uzten du, ordea, euskal mitologiaren kasuan tximistak ez direla, tradizio indoeuroparrean bezala, gizakia zigortzeko sortuak, Mari bere maitalearekin elkartzearen edo etxebizitzaz aldatzearen ondorio naturalak baizik.

Gizaki eta jainkoen arteko harremanak:

Goiko banaketa kosmologikoak gizakien eta jainkoen arteko harremanetan ezberdintasunak aurkitzera garamatza. Hartsuagak dion bezala, firmamenduak zerua eta lurra banatzen

dituenean nekez izango dira, gizakien eta jainkoen arteko topaketak. Jainkoen esku- harteak mugatuak izango dira, eta hauek Zerutik gauzatuko dira. Hala ere, nahi izanez gero lurrera hurbilduko dira. Bitartean, gizakiak miresmenez eta inbidiaz zuzenduko dira zerura. Bertara iristeko nahia erakusten dute, horrela lurreko miseriarekin bukatuko dutelakoan baitaude. Jainkoak ordea, gizakiak mespretxatuko eta haien aurrean axolagabekeria erakutsiko dute. Iliadan eta Eneidan ikus daitekeen bezala, jainkoek gizakiengan erabateko boterea daukate, gizakiek jainkoen nahien arabera jokatzeko baitute. Lurrean gertatzen dena, gizakientzat ikusezinak, ukiezinak eta entzunezinak diren jainkoen borondateak bultzatzen du.

Lanari dagokionez, gizakia izango da norberaren esfortzuaz gauzak lortu beharko dituen. Jainkoek ez dute lanik egin behar eta lan egitekotan Zeruaren erosotasunetik egingo dute. Jatera, edatera, alegia bizitzaz goatzera mugatuko dira.

Euskal mitologiaren kasuan, zerua ez denez existitzen, naturaz gaindiko izakiak lurrean bizi dira, baina izakiak bizi diren lurzoruan egon beharrean, lurpean. Hala ere, planeta berbera partekatzen dutenez, maiz egiten dute topo, gainera, gizakiak lurpera joan daitezke pasadizo sekretuen, sukaldeen, erreken ... bitartez. Hurbiltasun hau dela eta, esperientziak ere partekatuko dituzte bai mendian, bai basoan ... Lurraz gain, lana eta zaletasunak ere partekatzen dituzte. Biak lurrean bizi direnez, naturaren legetara moldatu behar dira eta ondorioz eginkizun berberak bete.

Aipatzekoa da Hartsuagak dakarren adibidea, bertan argi eta garbi ikus daitekeelako naturaz gaindiko izakia bada ere, izakien parean diharduela, hurbiltasuna erakutsiz:

“De la Virgen de la Antigua, de Ondarroa, cuyo santuario se halla en paraje elevado dominando a aquella villa, cuentan que en otro tiempo se ausentaba de noche, en épocas de tempestad, a proteger a sus devotos que navegaban en el mar. Volvía a la mañana a su hornacina y traía las ropas mojadas.”

Euskal kulturaren, eskuzko lanari eta eguneko zereginei, hau da, arropa garbitzeari, josteari, eraikitzeari, ogia egozteari ... berebiziko garrantzia ematen zaie. Horregatik euskal mitologian, behin baino gehiagotan, ikus daitezke lamiak erreketan arropa garbitzen, basajaunak ardiak zaintzen ...

Sakrifizioak:

Aspaldidanik, gizakien eta jainkoen arteko harremanetan sakrifizioak erabili izan dira. Hauek laguntza, errukia ... eskatzeko edota jainkoak goresteko egiten zituzten. Jarrera honek argi erakusten du jainkoen nagusitasuna; gizakiak baino azkarragoak, boteretsuagoak ... direnez gizakiak dira sakrifizioak eskainiko dizkietenak. Bi hauen arteko distantzia unibertsala bada ere, sakrifizioak ez dira modu berdinean eta arrazoi bertsuengatik gauzatuko.

Ikuspuntu Indoeuromerikotik abiatuta, esan beharra dago, kultura honetan sakrifizioa jainkoek inposatutako zerbait dela. Garaipen edo konkista eskubideen bidez, jaiotzaz gizakiari

inposatzen zaizkio. Egia da, jainkoek mesedeak egingo dizkietela, gizakien eskaerei erantzungo dietela askotan, baina betiere haien obedientzia bermatzeko.

Sakrifizioaren oinarrian ez dago elkarrekikotasunik, gizakiek beti izango dute jaiotzezko zor ordainezina. Sortzen denetik jainkoekin zorretan dago gizakia, ondorioz, eskaintza ez da berak erabakitzen duen zerbait, horretara behartuta dago. Ekintza hauekin bere betebeharra baino ez du egiten; zorra kitatu. Hori dela eta, zorra betetzen ez duena zigortua izango da.

Euskal kulturari dagokionez, gizaki eta jainkoen arteko sakrifizioak elkarrekikotasun harreman batean oinarritzen direla ikus daiteke. Bakoitzak ahal duen neurrian egingo ditu, betiere bestearen atseginerako. Basajaunen adibide batekin lagunduta hobeto uler daiteke; artzainek janaria eta sua uzten zioten eta honek ordainetan ardiak zaintzen zizkien. Horrez gain, edozein arriskuren edota ekaitzen aurrean artzainak abisatzen zituen. Euskaldunen kasuan, sakrifizioa betetzen ez duenak ez du zigorrik jasoko, jainkoen aldetik ez du laguntzarik jasoko, besterik ez.

Aurretik aipatutakoa laburbilduz eta nolabaiteko gogoeta orokor bat eginez, esan daiteke mitologia indoeuroparraren azpian *menderatze* eta *indarkeria* bezalako ideiak nagusitzen direla. Gainera, jainkoen eta izakien arteko distantzia erraldoiak gizakien artean ere hierarkiak izatea eragiten du. Gutxi batzuk izango dira jainkoen nahiak bultzatuta haiekiko hurbiltasuna erakutsiko duten “faboritoak”; beraiekin kontaktua izango dutenak eta ondorioz hirugarren funtzioaren parte izango ez direnak.

Euskal mitologian, izakiak jaiotzez askeak dira; naturak ezartzen dituen/dizkien legetara moldatu beharra daukate, baina naturaren lege hauek ez dira jainkoek inposatutakoak. Elkarrekiko errespetua nagusitzen da.

Polifemo eta Tartaloren arteko alderaketa.

Egia da, oraingoz nabarmenak diren desberdintasunak baino ez direla aipatu, hala ere, denboraren poderioz bi kulturen artean izan diren hatu-emanek mitologiotan berdintasunak izatea eragin dute.

Ondorengo atal honetan gure mitologiak beste handi hauekin dituen zenbait antzekotasun ikusiko dira. Horretarako Polifemo eta Tartaloren kontakizunetan oinarrituko gara. Polifemoren istorioan agertzen diren pasarteak Euskal mitologian aurki daitezkeen Tartaloren ingurukoekin alderatuko dira.

Polifemo ziklopearen inguruko kontakizuna Homerok bildutako Odisea liburuan aurkitzen da. Liburu hau Troiako gerraren jarraipen bat da. Gerra bukatuta, Ulisesek etxerako, hau da Ithakarako bideari ekin zion, baina liburuaren izenburuak argi erakusten duen bezala bidai hori odisea bat izan zen. Bere gizonak eta Ulises bera itsasoan galdurik, milaka oztopo gainditu beharrean ibiliko ziren. Oztopo horietako bat ziklopeen uhartean aurkituko zuten; Poseidón eta Toosa ninfaren semea den Polifemo alegia. Uharte honi paradisu baten antza har

dakioke, izan ere, Zeusek eragindako euriei esker lurra berak, modu automatikoan, ekoizten zituen bizirauteko beharrezkoak diren elikagaiak.

Ulises eta bere gizon prestuenak uhartea miatzera irtetean kobazulo batekin egin zuten topo. Barrura sartu eta bertan jabearen (Polifemoren) ardiak baino ez zeudela ikusita, itsasgizonek animaliak eta elikagaiak lapurtzeko proposatu zioten Ulisesi. Honek, aitzitik “munstroa” itxaron nahi zuen. Laster Polifemo agertu eta kobazuloko irteera harri erraldoi batez ixten du, Ulises eta gainerako bidaiariak barruan giltzapetuz. Bisitariak ikusi eta nortzuk diren, haien jaioterria zein den, gehiago ote diren ... galdetu zion. Ulisesek itsasontzia eta gainerako itsasgizonak ezkutuan mantentzeko asmoarekin, bakarrik etorri direla erantzun zion. Horrez gain, Zeusek ezarritako legeei edo ohiturei men eginez, harrera on bat egiteko proposatu zion. Polifemok ordea, jaikoak baino boteretsuagoa dela esan eta bi gizon jan zituen gordinik. Afaldu ostean lokartu egin zen, orduan Ulisesek ezpata hartu eta bularrean sartzeko bultzada izan zuen, baina leizeko sarrera oztopatzen zuen harriaz ohartu eta golkoan gorde zuen.

Hurrengo egunean, Polifemok bai gosaltzeko eta bai afaltzeko bi lagun jan zituen. Ulisesek, denbora agortzen zitzaiola oharturik, ontzitik ekarri zuen ardoa eskaini zion. Ziklopeak gustura edan zuen eta horren ordainetan, jango zuen azkena bera izango zela adierazi zion. Gizon ausart hura nor zen ez zekienez, bere izena galdetu zion, baina Ulisesek “inor ez” deitzen zela erantzun zuen.

Ardo guztia edan eta gero, mozkorturik gora begira etzan eta lokartu egin zen ziklopea. Ulisesek, ondoan zeukan hesola sugarretan berotu eta kideen laguntzaz begi bakarrean sartu zion Polifemori. Azken hau minaren minez garrasika hasi zen, inguruan bizi ziren ziklopeei deika. Haiak leize ingurura hurbildu eta zer zuen galdetu zioten. Polifemok, *Inor Ez* bera hil nahian zebilela erantzun zion. Beste ziklopeek hori entzutean Zeusen gaitzen bat izango zela pentsatu zuten eta, haren kontra zer eginik ez zegoenez, alde egin zuten.

Desesperatutik, Polifemok sarrerako harria kendu eta bertan jesarri zen, ardiak irteten uzteko, bai Ulises bai besteak harrapatzeko. Baina Ulisesek bertatik ihes egiteko plan bat burutu zuen; ahariak hirunaka lotu eta erdikoan azpian gizon bat kokatuko zen. Hau ondoko bi ahariez babesturik zegoenez atetik irteterakoan ziklopea ez zen ezkutatuta zihoan gizonaz jabetuko. Protagonistak ordea, beste modu batean egin zuen ihes; aharirik mardulenaren azpian kokatu zen. Ahari bakar batentzat pisu handia zenez azkena izan zen irteten Ziklopearen harridurarako. Hala ere, guztiek kanpora irtetea lortu zuten, eta hori gutxi balitz beraiekin ziklopearen ardiak eraman zituzten.

Leizetik urrun zeudela, Ulisesek bere benetako izena esan eta iseka egin zion ziklopeari. Azken honek haserrearen haserrez aspaldi Telemo orakuluak aurreikusitakoa bete zela ikusita, mendi handi bati gailurra erauzi eta itsasora jaurti zuen, itsasontzitik hurbil, uhin ikaragarriak sortuz. Aztoraturik, ziklopeak bere aita zen Poseidoni, Ulisesek etxera itzultzean giroa hondaturik izatea erregutu zion. Eta hala izan zen ...

E. Redondok (1997) bere lanean egiten duen azterketaren arabera Homero aedoaren helburua bizimodu erabat ezberdineko bi pertsonai kontrajartzea zen. Odiseok grekoen mundua irudikatzen duen heinean Polifemok mundu horretatik kanpo bizi diren izakiak irudikatzen

ditu “basatiak”. Alderaketa hau bi parametroen bidez irudikatzen dela ikus daiteke; indar fisikoa eta inteligentzia. Bi hauen artean nolabaiteko borroka izango da eta inteligentzia (Odiseo) aterako da garaile.

Kontakizun honekin batera funtsean gai berbera duten eta folklore herrikoarekin lotuta dauden beste hainbeste aurki daitezke. Wilhem Grimm izan zen antzeko istorio batekin erkatu zuen lehena. Beranduago, kontakizun honen lehen aztarna non jaso zen jakiteko asmoarekin, O. Hackman-ek, protagonistatzat begibakarrak zituzten 221 aldaera jaso zituen, denak Europa, Kaukaso eta Asia Zentralekoak.

Guzti hauek 3 taldetan banatu zituen.

- 1) Heroia erraldoi baten atzaparretan erori eta leizean giltzapeturik geratzen da. Bertatik irteteko lehenbizi erraldoia itsutu eta gero, bere ardietan ezkutaturik leizetik ihes egitea lortzen du. Askotan beste atal bat gehitzen zaio; erraldoiak objektu magiko baten bidez (normalean kokapena adierazten duen eraztuna) iheslaria harrapatzera abiatzen da.
- 2) Protagonistak nolabaiteko deabru bati egiten dio aurre. Deabrua normalean ez da, ez haragijalea ez erraldoia. Protagonistak azken hau ezgaitu egiten du, baina ez odisean bezala begian objektu zorrotz batez ziztatuz. Horrez gain, Odisean bezala protagonistak deabrua engainatu egiten du eta honen lagunek nori zauritu duen galdetzen dutenean “ni neuk” erantzuten du.
- 3) Berankorrak diren ipuin finlandiar letoiak. Hauetan, elementu ezberdinen konbinaketa antzematen da. Munstroa ez da erraldoia eta itsutzea ur edo burdin urtua begian isuriz gauzatzen da. Horrez gain, izenaren iruzurra egon badago ere, ihesaldia ez da ardien bidez ematen.

Redondok (1997) dioen bezala, bertsiio originalak ondorengo atalak jasotzen zituela ondorioztatu zuen Hackmanek: erraldoiaren itsutzea lo dagoela gertatzen da, ihesaldia ardien bidez izaten da eta azkenik eraztun magikoa. Objektu magiko hau oinarrizko bertsiokoa ez bada une goiztiar batean erantsitakoa izan behar du. Bertsiio eslabo eta euskaldunetan ageri da betez ere, baina ez Homeroren bertsiora gehien hurbiltzen diren kaukasikoetan. Azken hauek “bakarturik” bizi izan ziren eta bizantziarren eragina baino ez zuten izan, horregatik, hauen existentziaren daturik ez da aurkitu eta ez zuten gainerakoek eraginik izan.

Oinarrizko bertsiorekin pasarteak zedarritu ostean, Hackmanek, 2. eta 3. ataleko ipuinak Odiseoren alderaketa egiterakoan baztertzea erabaki zuen.

Hau guztia irakurrita, ondorengo galdera bururatu dakioke irakurle prestuari; aldaerok odisearekiko jatorri independentea dute edota bertako istorioaren zabaltze bezala sortu ziren? Grimmek, hainbat argudio aurkezten ditu berezko jatorria dutela defendatzeko; kontakizuna Odiseakoan oinarrizko balitz, gainerakoetan heroiak “inor” (nadie) deitzen dela esan beharko luke eta ez da horrela suertatzen. Bestalde, mozkorraren eta ardoaren atala falta dute ipuin askok. Horrez gain, begibakarra itsutzeko eran, baita kobazulotik ihes egitekoan aldeak auri

daitezke Odiseatik gainerako kondairetara. Bakoitzak sortze independente bat izan zuela eta beraz Odiseorena beste aldaera bat baino ez dela pentsatzeak, aldaketa hauek onartzeko abagunea ematen du. Hala ere, horrekin ez da adierazi nahi Odiseak zenbait aldaeratan eragina izan ez zuenik. (Keos: 1997).

Polifemoren narrazioa, aditu ezberdinen (X. Azurmendi, Luis Barandiaran, Reiches, J.B Darrigarrere ...) eskutik jasotako gainerako aldaerekin konparatzeko lagungarria da bertan ageri diren atalak zerrendatzea. Ondoren datozenak aurretik kontatutako Odiseoren Polifemori dagozkionak dira:

Heroia munstroaren atzaparretan erortzen denekoa (A):

Aedoaren arabera, topaketa honen eragilea Odiseok herrialde berriak ezagutzeko duen jakin-minari sor zaio. Odiseo eta bere lagunak aurretik ikusita zeukaten leizea eta beraz barruan sartzeko gogoia ere. Horrez gain, jabea etorri arte itxaroten dute, ez da gainerako bertsioetan eman ohi den kasualitatezko topaketarik. Egia da, beste batzuetan protagonistak sartu egiten direla erraldoiaren “etxean”, baina betiere hau barruan dagoelarik.

Kanibalismoa (B).

Bertsio guztietan begibakarra haragijalea da. Horregatik, hain zuzen ere, alde egin nahi dute bere hatzaparrenetan erortzen diren guztiak. Odisean, Polifemok bere gonbidatuen izena, jatorria ... galdetzen du. Odiseok bere izena esan beharrean, bere historia kontatu eta harrera on baten eskaria egiten dio; jainkoen esanak betez. Polifemok ordea, jainkoak baino indartsuagoa denez hauek errespetatzen ez dituela esan eta bi lagun jaten ditu. Hala ere, begibakarrak esandakoa kontakizunean zehar gezurtatzen da, izan ere, bere aita den Poseidon jainkoak bakarrik izango du bere itsutasuna sendatzeko ahalmena eta honi laguntza erregutuko dio. Horrez gain, Odiseori sufrimendua sorraraztea eskatzen dio. Odisean ez bezala, gainerako testuetan begibakarrak ez dute inolako azalpenik emango euren biktimak jaterakoan.

Ardoaren eskaintza eta mozkorra (C).

Bi pasarte hauek normalean ez dira gainerako bertsio herrikoietan ageri; begibakarra bere kabuz lokartu ohi da. Literatura grekoan Odiseok ardoa eskaintzen dio eta honek mozkortu arte edaten du. Hori gutxi balitz, gainerako biktimekin egin ez bezala, Odiseori bere izenagatik galdetzen dio, eta honek goian azaldu bezala “inor” erantzuten dio. Hasiera batean, Polifemok “inor” deitzen dela sinestea mozkorrak eragin duela pentsa genezake, baina behin itsuturik “inor-k” min eman diola errepikatzen du behin eta berriro, itsutu duenak benetan izen hori duela erabat sinetsirik. Pasarteak, beraz, aurretik egotzitako inteligentzia falta erakusten digu.

Izena ezkutatzek antzinako sinesmen primitiboetan du jatorri; hauen arabera naturaz gaindiko boterea du eta besteen artean ezagutarazteak izenaren botereaz baliatu daitekeenari boterea ematea suposatuko luke, kasu honetan Polifemori.

Itsutzea (D).

Kanibalismoa eta itsutzea gau berean gertatu ohi dira, hau da, biktimak begibakarraren etxera hurbiltzen diren egunean bertan. Odisea landuagoa denez, bigarren egunera luzatzen da. Horrez gain, azken honetan olibondo baten zati zorroztua sutan gogortu ostean ematen da. Gainerakoetan, ohikoena erraldoiak bere biktimak jaterakoan erabili duen metalezko burruntzia berotu ostean erabiltzea da. Homerok olibondoa erabili izana ez da kasualitate hutsa. Honen presentzia gutxienez bost bider antzeman daiteke Odiseoren salbazio ezberdinetan. Hori gutxi balitz, ateniarraren zaindari den Atenea jainkoarekin erlazionatzen da. Atal honekin bukatzeko, interesgarria iruditu zait Germain-ek itsutzearen zergatiaz dioena: *“Polifemo y los agros de los cuentos han cometido asesinatos, puesto que devoran a sus víctimas, de manera que resultan castigados por ellos con la privación de la vista.”* (E. Redondo 1997: 165.orr).

Laguntza eskaera (E):

Bertsio gehienetan, begibakarra bakarrik bizi da, bakan batzuetan baino ez da familiarekin, morroiekin edota sozietateko besteekin bizi Homeroren kontakizunean bezalaxe. Idazle honek gainerako begibakarrak Polifemotik hurbil dauden kobazulo batzuetan kokatzen ditu, baina hala ere, laguntza eskasekoak izango zaizkio begibakarrari.

Leizeko ihesa (F).

Kontakizun gehienetan, ihesaldia ardi-larruz mozorroturik eta ardien mugimenduak imitatuz izaten da. Ohikoa da ere, begibakarra horretaz ohartu eta hau harrapatu nahian ardi larruarekin eskuan geratzea. Homerok bildutakoan gertatzen dena ez da arrunta, oso bertsio gutxitan ematen da pertsonaiak ardi azpian etzanda kobazulotik ihes egitea. Sinesgaitza da ahari normal batek gizon sendo baten pisua jasateaz gain ibili ahal izate. Sinesgaitza dirudi aldi berean gainerako itsasgizonak ardiak hironaka bilduz behean jarri eta Polifemok hauek ukitzean ez ohartzea. Oraingo honetan ere Polifemoren inteligentzia eskasa antzeman daiteke.

Ziklopeen lurraldeko ihesa (G); orakuluak aurreikusitakoa betetzea (H); harrien jaurtiketa (I); mendekuaren eskaera (J) eta gainerako itsasgizonekin elkartzea (K).

Bost atal hauek batera aztertuko ditugu, Odiseoren istorioarekin lotuta daude batez ere, beraz bertan baino ez aurkitzen diren ezaugarriak dira gehienak. Hala ere, antzeko pasarteak aurki

ditzakegu dagoeneko kontakizunetan. Orakulua Homeroren kondairan baino ez dugu aurkitzen, hau antzinako Greziar kulturaren erakusle da. Argi eta garbi erakusten du patua aldagaitza dela, ez dagoela horren aurka borrokatzerik. Aitzitik, normala da ihes egin ostean protagonistak Ziklopeari iseka egitea, Odiseok egiten duen bezalaxe.

Polifemok mendiko harri erraldoiak erausi eta itsasora jaurtiz erantzuten dio, gainerako ipuinetan honen ordeztun magikoaren jaurtiketa genduke. Kasu guztietan jaurtiketa hutsala izango da, erraldoiak ez du bere helburua lortuko, aitzitik maiz galbidea baino ez du aurkituko.

Ipuin herrikoietan protagonistak eratzuna uretara jaurti egingo du, ondorioz itsuturik dagoen begibakarra bere atzetik salto egin eta uretan itotzea dakarrela. Esan dezakegu beraz, ziklopearen boterea beti edo ia beti uretan bukatzen dela. Aurreko atalean Odiseoko Polifemoren pasarteak ezagutu eta orokorrean gainerakoekin alderatu ostean, Euskal Herrian Tartaloren inguruan aurki daitezkeen zenbait kontakizunen atalak aurkeztuko dira. Guztiek Redondok dokumentuan jarraitutako banaketa edo zenbakitze berbera jarraituko dute, modu honetan alderaketa sakonago bat egin baitaiteke. Tradizioan zehar istorio anitz jaso direnez, dibertsitate handia aurki daiteke, funtsean “berbera” izan arren.

Ondorengo taulan Redondok (2002) bildutako zenbait kontakizunen pasarteak ageri dira (aurreko Polifemoren banaketa berdina jarraituz). Artikuluan, zenbakiak darabiltza istorioak bereizteko eta taula honetan zenbaki horiek errespetatzea erabaki da, pasarteak ordeztun letra ezberdinekin zenbakitu dira. Horrez gain, Polifemoren istorioan aurki zitezkeen zenbait pasarte taulatik kendu dira, izan ere, Odiseoren kontakizunean baino ez dira aurkitzen; (c) mozkorren eta ardo eskaintzaren pasarteak; (e) Polifemok gainerako ziklopeei laguntza eskatzen dien pasarteak (euskal mitologian begibakarra bakarrik bizi da kasu gehienetan); (g, h, j, k) ziklopeen lurraldeko ihesari, orakuluak aurreikusitakoa betetzeari, mendekuaren eskaerari eta Odiseo gainerako itsasgizonekin elkartzeko deneko pasarteak dagozkionak.

Pasarteak kentzeaz gain moldaketa batzuk ere izan dira. Euskal “ziklopea” Greziako uhartean bizi beharrean Zegamako Sahadar mendian kokatuko da batik bat. Horrez gain, Tartalok ez dizkie harriak jaurtitzen bere atzaparretatik ihesean doazenei. Aurretik esan bezala, normalean Polifemoren harriak eratzun magiko batentatik ordeztutzen ditu.

Eratzun honen jaurtiketarekin batera beste moldaketa bat aurki daiteke: begibakarraren heriotzari dagokion pasarteak (l). Greziar mitologiako Polifemok bizirik badirau ere euskal bertsioko gehienetan uretan itota hiltzen da Tartalo. Redondok (2002) biltzen duenaren arabera, eratzunari eta Tartaloren heriotzari dagokion pasarteak, behin kontakizuna sortuta zegoela, denboraren poderioz, gehitu zaio. Izan ere, askotan lotura eta logikarik gabe “itsatsi” dela baitirudi.

	A	B	D	J	L	M
1	Ez zaigu esaten zelan heldu diren bertara. Horrez gain denak dira anonimoak.	Begibakarrak biktima animalari baten antzera jaten du. Zatitu gabe. Protagonista jatera gonbidatzen du.	Lehenengo gauean begibakarra itsutzen du berotu gabeko erregailu batekin.	Ardi larruz jantzita Tartalo engainatzea lortzen du.	Tartalok ez du protagonista berreskuratzeko saiakerarik egiten; Ez dio ezer jaurtitzen.	Tartalo bizirik dirau.
2	Salerosleak etxolara heltzen direnerako jabea (Tartalo) ez dago. geroago heltzen da.	Lodiena jaten du lehenago.	Lehenengo gauean begibakarra itsutzen du berotu gabeko erregailu batekin.	Artaldeak ihes egiteko balio dio protagonistari. Lehenengo ezkutatzeko eta gero ihes artilea jantzita ihes egiteko.	Eraztuna jaurti eta protagonista atzamarrean ipintzen du. Hau magikoa da eta Tartaloren non zaude galderari hemen nago erantzuten dio.	Atzamarra moztu eta kanalera botatzen du. Ondorioz Tartalo itota hiltzen da.
3	Anonimoak diren anai-arreba gazteak dira protagonistak. Hauek gerturatzeko dira Tartaloren domeinuetara.	Biktima bizirik erre egiten du Tartalok. Bertan bere maltzurkeria erakusten da.	Odisean bezala lehenengo gauean burruntzia erretzen da.	Tartalo ardi larruak jaurtitzen zebiltzan biktima harrapatu nahian, baina halako batean ardi larruz mozturrotutako protagonista jaurtitzen du kanpora.	Lehendik eraztuna ipini zion; honek behin eta berriz iheslearen tokia adierazten dio Tartalori.	Atzamarra moztu eta putzu batera botatzen du. Ondorioz Tartalo itota hiltzen da.
4	Biktimak gaua pasatzeko aterperik ez duten bi ume dira. Tartaloren etxearekin egiten dute topo	Lehenbizi lodiena jaten du eta gero bigarrena loditzen saiatzen da. Horretarako haragi gordina eskaintzen dio.	Lehenengo gauean begibakarra itsutzen du berotutako erregailu batekin.	Ardiak protagonista ezkutatzeko balio dute, ez etxetik ihes egitea lortzeko. Berak egingo du alde bere kabuz.	Lehendik eraztuna ipini zion; honek behin eta berriz iheslearen tokia adierazten dio Tartalori “hemen nago” esanez.	Atzamarra moztu eta uretara botatzen du. Ondorioz Tartalo itota hiltzen da.

	A	B	D	J	L	M
5	Jabeak, morroia Tartaloren etxera gutun batekin bidaltzen du. Bertan, gutuna daramana hiltzeko eskatzen zaio. Denak anonimoak.	Protagonista bakarra da, ez dago kanibalismorik.	Lehenengo egunean, begibakarra esna dagoelarik protagonistak berotu gabeko erregailu batekin itsutzen du.	Protagonista ardi larruz mozorrotu zen eta Tartalok ardi bat zela pentsaturik ihes egiten utzi zion. Irtetean "librea naiz" (Odiseon ipuinean bezala) esan eta Tartalo guztiaz jabetu egiten da.	Ez dago honen pasarterik.	Ez dago honen pasarterik.
6	Kasualitatez mendiak egiten dute topo. Artzainak (begibakarrak) kobazulo barruan sartzeko agintzen dio. Denak anonimoak dira	Biktima bazkaltzera gonbidatzen dute baina honek ezetz erantzuten du	Lehenengo gauean begibakarra itsutzen du berotutako erregailu batekin.	Protagonista ardi larruz mozorrotu zen eta Tartalok ardi bat zela pentsaturik ihes egiten utzi zion. Irtetean ardi larrua lurrera bota egiten du. Baina orduan, eraztunak ezagutu eta Tartalo abisatu egiten du.	Eraztuna, hitz egiteko kapaxa izateaz gain, inteligentea da. Bere da Tartalorik bere biktimaren ihesaldiaz abisatzen diona. Tartalok momentuan jaurti eta morroiak atzamarrean ipintzen du.	Morroiak atzamarra moztu eta putzura jaurtitzen du. Tartalo itota hiltzen da.
7	Kasualitatez.	Ez dago kanibalismorik, protagonista bakarra dagoelako.	Lehenengo gauean begibakarra itsutzen du erregailu batekin. Ez zaigu esaten berotua izan den edo ez.	Umeak ahari handiena hil egiten du eta horren ardi-larruaz jantzen da. Odiseon antza hartzen du.	Tartalok eraztuna jaurti egiten dio umeari eta honek hartu egiten du. Orduan "hemen nago" oihukatzen hasten da.	Atzamarra moztu eta uretara jaurti egiten du. Tartalo itota hiltzen da.
8	Zortzi umeak gaua igarotzeko etxola baten	Ez da kanibalismorik, baina pertsonak	Lehenengo gauean begibakarra	Zortzi ahari hiltzen dituzte eta hauen	Tartalok eraztuna jaurti eta umeak hartu	Ez du atzamarra moztu behar. Kendu eta

	A	B	D	J	L	M
	bila zebiltzan. Protagonista ez da anonimoa; Gizon ttipi da.	jaten dituela badakigu berarekin bizi den zerbitzariagatik.	itsutzen du berotu gabeko erregailu batekin	larruez estaltzen dira. Ahariak bailitzan ihes egiten dute.	egiten du. Honek “hemen, hemen” oihukatzen du.	uretara jaurti egiten du. Tartalo bere atzetik doa eta uretara erortzean ito egiten da.

Argi eta garbi ikus daiteke taulan kontakizunen artean antzematen diren ezberdintasunak askotan agerikoak baino ez direla. Eratzuna putzu batean bota beharrean errekan botatzea edota ardi larruz mozorrotu beharrean ahari larruz mozorrotzea. Noski, zenbait kontakizunetan nolabaiteko antzekotasunak egon arren istorio bera ote diren galdetzera eraman gaitzaketen ezberdintasun nabariak aurki daitezke, esate baterako taulan sartu ez dudana 12.2 bertsioa. Bertan Tartalo ez da begibakarra eta ardi artzaina izan beharrean txerriak zaintzen ditu. Ondorioz ez dago itsutzearen ezta ardi larruaren azpian ihes egitearen pasarterik. Aldi berean, nahiko bitxia da 12.3 “ *El loco y el tártalo*” kontakizuna. Bertan inteligentzia falta izango da begibakarrari heriotza sorraraziko diona. Ihesian doan protagonistak tripak ebaki dituela sinestarazten dio Tartalor, horrela bizkorrago joango delakoan. Baina tripak moztekoan lurrera botatzen duena bere tripak izan beharrean txerriak da. Tartalo ordean hura imitatzen saiatu eta bere burua hiltzen du. Honelako adibide gehiago biltzen dira Redondo idatzitako kapituluak, oso garatuak diren istorioetatik ginetik eta logikarik gabe kontatuak diren istorioetara egiten dugu salto, *gizon ttipi* izeneko protagonista batetik (10. ipuina) *Txikilin* deitzen denekora (8. Ipuina), hala ere gogoan izan behar duguna zera da; ezberdintasunak ezberdintasun, kontakizunotan gailentzen dena antzekotasunak direla eta hauek zerbaiti sor zaizkiola, alegia guztiak istorio komun batetik sortutik izanari.

Konklusioa:

Istorioak sakon aztertu ostean, guztien artean nolabaiteko loturak eta antzekotasunak badirela nabarmen da. Egia da, ipuin, kondaira edo kontakizun bakoitzak bere moldaketak dituela baina funtsean gertatzen dena berdina da gehienetan. Protagonistak, tokiak, bertara iristeko modua ... aldatu daitezke askotan, baina ezberdintasunak baino antzekotasunak dira aipagai. Lehenbiziko ataletan azaldutakoari jarraiki, jakin dakigu guztiaren atzean ezkutatzen den istorioa berdina izan arren kultura bakoitzak bere moldeetara egokitzen duela hau. Bertan kultur, herrialde bakoitzari dagozkion tokiak, jendea, ohiturak ... txertatuz.

Bukatzeko, mitologiaren garrantzia azpimarratzea gustatuko litzaidake, izan ere, honako hau egunerokotasunean hain bizirik aurkitzea gizakiari barrutik datorkion beharrian bati dagokiolako sor zaio. Gizakiak berez dituen beharrian material eta espiritualak baino boteretsuagoa den sentsuzko dinamikarako beharrianari alegia.

Bibliografia

Alijostes Bordagarai, K. (2011). Amaroa. Euskal mitologiaren ataria.
<http://www.amaroa.com/ezaugarri-nagusiak/mitologia-konparatua>

Garagalza Arrizabalaga, L. J. (2006-2007). La mitología vasca en la actualidad. *Kobie. Antropología cultural*, 12, 135-148.

Hartsuaga, J. I. (2004). *Jentilen Akaberak*. San Sebastián: Sociedad de Ciencias Aranzadi.

Redondo Moyano, E. (1997). “El genio de un solo ojo en la mitología griega, Polifemo”, *KLEOS*, 2, 137-188 <https://addi.ehu.es/handle/10810/13717>

Redondo Moyano, E. (2002). “El genio de un solo ojo. II: En la mitología vasca: Tártaro”, *KLEOS*, 7, 83-156 <https://addi.ehu.es/handle/10810/13718>